

## IRAKASLE EZ DIREN LANGILEEN EKIPARAZIOA 2016ko ATZERAPENAK (2)

Hitzarmen berriko negoziazio mahaia atzo, uztailak 13, bildu zen irakasleen ez diren 2016ko lansarien taula erabakitzeke publikoko langileekiko %95aren ekiparazioa betetze aldera.

Dakizuenek ekiparazioaz epaia betetzeko ekainaren 27ko bileran ez zen ezer erabaki patronalek ez zutelako inolako proposamenik egin – epaia bete behar dutenak izanik ere- publikoan erreferentea galdu duten kategoriei buruz. Oraingoan, Kristau Eskolak bere proposamena eramanzuen mahaira

STEILASek hasieratik adierazi zuen aurkezturiko proposamena ez zuela sinatuko ez zuelako, KEk onartzen zuen bezala, irakasle ez diren langileen kategoriekin daukagun arazoa – guztiok argi daukagu kategoria hauek birmoldatu eta birdefinitu behar direla- . Horrez gain erabakiak jasotzen duen atzerapenak kitatzeko epea urtearen amaiera da. **STEILAS**ek epea hau abuztuaren 31ra, aparteko pagaren % 25 ordaintzegatiko atzerapenak kitatzeko epe bera, aurreratzea eskatu zuen

Sindikatu guztiek bere iritzi eman ondoren lortu genuen proposamenaren aurrean jarrera komuna adostea. Prest ginateke KEren proposamena onartzeko baldin eta, batetik atzerapenak kitatzeko epea abuztuaren 31ra aurreratu eta, bestetik 2017ko publikoko lan kontratadunen iguera publikatu eta berehala mahaia bildu sektoreko Irakasle ez direnenak adosteko.

Kristau Eskolak bigarren hau onartu zuen baina epea aurreratzearena ez, kontu teknikoak direla eta.

Gauzak horrela gai mahai gainean geratu da eta datorren bilera irailaren 27an izango da.

**STEILAS**en ustez ez dago inolako arazorik KEk eta IZEAK epaia betetzeko eta hitzarmenak dioen moduan irakasle ez diren langileen %95eko parekidetasuna betetzeko. Borondate kontua baino ez da!